

KROKODILO TXIKIA, JIRAFALATUA ETA NEURRI KONTUAK

Testua eta ilustrazioak: DANIELA KULOT

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA

Azal gogorrez koadernatua. 23 x 29,7 cm. 32 orrialde. 15 €

Krokodilo txikia, Jirafa altua eta neurri kontuak (euskara)
ISBN 978-84-9172-113-0. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Una casa a medida (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-469-9. Obras de autor. Primeros lectores.

Unha casa a medida (galego)
ISBN 978-84-8464-468-2. Demademora.

O pequeno crocodilo e o amor de uma vida (portugesa)
ISBN 978-989-8205-93-3. Obras de autor. Primeiros leitores.

Hau Jirafa da. Oso altua da.

Eta hau Krokodilo da. Krokodilo oso txikia da.

Bien artean bi metro eta berrogeita hiru zentimetroko aldea dago.

Hala ere, bikote bat osatzen dute.


Benetako bikote maitemindu bat...

Istori honetako protagonistak maiteminduen bikote ezohikoa da, eta bizikidetzan sortuko zaizkien zailtasunak adimen-zorroztasun eta umore pittin batekin gaindituko dituzte. Izan ere, zentimetro gutxi batzuetako aldea erraz gaindi daiteke maitasunak ematen duen indarrarekin.

Gainditu beharreko lehenengo probetako bat izango da bientzako etxe bat aurkitzea, eroso eta bien beharretara egokitua. Irtenbidea, neurrira egitea...

“Krokodilo txikia maitemindu da” lanaren ondotik, Krokodilo eta Jirafari buruzko bildumaren bigarren alea da hau. Bilduma osatzen dute *Krokodil und Giraffe: ein richtig echtes Liebespaar* –laster argitaratuko da euskaraz– eta *Krokodil und Giraffe: eine ganz normale Familie* lanek.

Daniela Kuloten lanek arrakasta handia izaten dute haurren artean eta badituzte zenbait ezaugarri, hala nola pertsonaien aukeraketa –animalia gizatiartuak izan ohi dira–, ilustrazioen aberastasun kromatikoa eta bere liburuetan agertzen diren gaiak. Izan ere, bere kontakizunen azpian irakurle gazteen prestakuntzarako mezu oso baliagarriak aurkitzen ditugu. Hala, gaur egungo alegia hau tolerantziaz, besteekiko errespetuaz eta desberdintasunak onartzeaz mintzo zaigu.



- **Gala:** maitasuna eta bikote-harremana.
- **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.
- **Alderdi alpagarriak:** desberdintasunak onartzea, tolerantzia eta bizikidetzaz; besteekiko errespetua, zailtasunak gainditzea. Sentimenduak. Bildumako beste izenburuak: “Krokodilo txikia maitemindu da”, “Krokodil und Giraffe: ein richtig echtes Liebespaar” eta “Krokodil und Giraffe: eine ganz normale Familie”. Idazlearen beste lan batzuk: “Lea lernt Schleife binden” eta “Munkeln im Dunkeln”.
- **Liburuaren lagina:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/krokodilo-txikia-jirafa-eusk>

Daniela Kulot

(Schongau, 1966)

1988an Arte Hezkuntzako ikasketak hasi zituen Augsburg-eko Unibertsitatean, eta ondoren diseinu grafikoa eta ilustrazioa ikasi zuen. 1993an margolari, ilustratzaile eta diseinatzaile gisa hasi zen lanean, freelance moduan. Municheko Arte Ederren Eskolan osatu zuen bere prestakuntza. Haur literaturako nazioarteko azoketan ibili zen, hala nola Boloniakoan, eta Thienemann argitaletxe alemaniarrek bere lanak argitaratzeko lehen aukera eman zion. 1999an marrazketa eskolak ematen hasi zen Augsburg-eko Lanbide Eskolan. Bere lanak ikusgai egon dira Bratislavako Nazioarteko Biurtekoan (1997), Günzburg-eko Museoan (2001) eta Nagamako (Japonia) Arte Erakusketan (2002), besteak beste.
<http://daniela-kulot.de>

